

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Irakaskuntzan gutxien lantzen den testu tipoa argudio testua da; ikasle-irakasleek gutxitan aurkituko dute testu tipu hori lanerako materialetan, nahiz eta gure eguneroko bizitzan etengabe darabilzkgun argudioak.

Askorentzat “argumentazioa arazo iturri eta neutraltasunaren aurkakotzat jotzen da, arazoak konpondu, negoziatu eta ikasleen oldarkortasuna hitzez bideratzeko bitartekoa izan beharrean. (...)

Ahozko elkarrizketa argumentatiboan, haurra aurkakoaren jarrerari errazago eta bat-batean egokitzen zaio. Idatzizko argudio egoeretan, aldiz, ahalegin askoz handiagoa egin beharko du testuaren azken helburua eta hartzailea identifikatzeko. (...)

Baina, argudio testuak haurren eskura jartze hutsa ez da aski. Ikusmolde berrizaleenak irakurketa eta idazketa ariketen arteko interakzio beharra azpimarratzen dute”.¹

Beraz, argumentazioak estrategia diskurtsibo eta ezaugarri linguistiko propioak dituzenez ikasleei erakutsi egin behar zaie eta irakasleei materiala eskaini.

Bestalde, gaur eguneko gizarteak dituen erronka berriei aurre egin nahian inmigrazioaren gaia, desberdintasun ekonomikoak gai egokiak iruditu zaizkigu ikasleek beren iritzia izateko eta lagunen artean eztabaidatzeko.

“Indarkeriaren aurka” proiektu honetan, Natura, Gizarte Eta Kultura Ingurunearen Ezagueraren Curriculumeko 4 blokeari dagozkion edukiak landuko dira:(Pertsonak, kultura eta gizarte-antolakuntza).

Munduko eta EAE-ko egoera ekonomikoa, eta bertan bizi diren pertsonen egoera ekonomikoa, populazio mugimenduak... aztertuko dira eta ikasleek eskuratuko duten informazioaz jabetzeaz gain iritzi kritikoa garatzeko aukera izango dute.

¹ Joaquin Dolz, *Argudiatzen garaiz irakastearen alde, Nafarroako Gobernua*

Ikasleen iritzien elkartrukea emateko proposatu dugu mahai-inguru bat egitea euskaraz unitatearen amaieran eta norbere ikuspegia azaltzeko iritzi artikulua proposatu dugu gaztelanian.

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Unitate bakoitzak 4 sekuentzia ditu, bakoitzaren amaieran bitarteko ekoizpen txikia proposatu da, modu horretan ikasleak ikusiko du ataza bat bukatu duela eta beste berri batekin hasiko dela.

Unitatearen hasiera eta amaieran auto erregulazio jarduerak garrantzi handia dute Herritartasunerako Eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza arloko helburuak garatzeko. Aldi berean, partaidetza, erantzukizuna eta besteen iritziak errespetuz onartzea unitate honen oinarrizko irizpideak dira.

1. sekuentzian Natura, Gizarte Eta Kultura Ingurunearen Ezagueraren edukiak lantzen dira batez ere eta ondorengoetan Hizkuntzari dagozkionak. Irakasleak erabakiko du unitateak 0 sekuentziarekin hasi eta laugarrenarekin amaitu Ingurune eta Hizkuntza orduak erabilia edo 0 eta 1. Ingurune arloetan landu eta gainontzekoak aldi berean Hizkuntza arloetan.

Ulermen estrategiak leku handia hartu du proiektuan. Oztopo hori gainditzeko 1. sekuentzian irakurketa guztietan lan prozedura berdintsua erabiltzea proposatu dugu:

- denon artean irakurtzen hasi aurretik, zertarako irakurriko dugu?, zer esaten du tituluak?, zer dakizue honetaz?, zer kontatuko digute? ...Irakurri bitartean: ezagutzen ez dituzten hitzen esanahia aurkitu, lehenengo talde txikian, testuan bertan egon daitezkeen pistekin, azkenean hiztegian begiratu.
- Hitz ezezagunen Glosategia egitea proposatu dugu testuetan agertzen diren hainbat kontzepturen zailtasunaz ohartuta.

- Beste kasu batzuetan, kontzeptu mapak osatzea, testuetan ideia nagusiak laburtzea, informazio bilatzea izango dira luzatuko diren proposamenak.

Jarduera bakoitzaren hasieran bertan lantzen diren hizkuntza-trebetasunen ikonoak jarri ditugu. Ikur hauek Hizkuntzen Portfolio Europearrean erabiltzen direnak dira: Irakurmena, elkarreragina, idazmena, ahozko adierazmena eta entzumena.



KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Populazioa, migrazio mugimenduak, aberastasunaren banaketa, herrialde garatuak eta garapenaren bidean daudenak...gaiak aitzakiatzat hartuta proiektu honetan ikasleei euskaraz mahai-ingurua egitea eta gaztelaniaz iritzi artikulua idaztea proposatuko zaie beren iritzia agerian jartzeko, ahoz zein idatziz, eta eremu ezberdinetan: pertsonen arteko harremanetan eta komunikabideetan.

PROIEKTUAREN ARDATZ KOMUNA

Testu tipoa: Argudio testua

Gaia: Bazterkeria jatorri ala maila ekonomikoagatik

HELBURU OROKORRAK

Hizkuntza

1. Ahozko eta idatzizko argudio diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.
2. Iritziak adierazteko hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia berriak behar bezala betetzeko.
3. Era egokian elkarrizketan aritzea, errespetuz eta lankidetzaz asmoz, hartara norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta talde-lanean jakintza eraikitzeko.
4. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta -arauei buruzko gogoeta egitea, argudio testuak hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utzita hizkuntzaren estereotipoak, hau da, edozelako balio-judizioak eta aurreiritziak.
5. Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko sorburua den aldetik.

Inguruaren Ezaguera

- 1.-Norberaren kulturaren ezaugarriak eta gainerako taldeekiko ezberdintasunak balioestea, gainerako identitate, kultura eta herriak errespetatzea, eta Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioa sustatzeko asmoz.
2. Talde-jardueretan parte hartzea, funtzionamendu demokratikoaren oinarriko printzipioak aplikatuz; guztion helburuak lortzeko norberaren eta besteen ekarpenak balioetsiz, eta elkartasunez komunitatearen alde eginez inolako bereizkeriarik gabe (generoan, arrazan, kulturen, erlijioan edo beste edozertan oinarritutako diskriminaziorik gabe).
3. Ikaslearen inguruko gizarte eta kultura ingurunean denboraren poderioz gertatutako aldaketa eta eraldaketak hautematea eta kritikoki balioestea, eta aldaketa horien aldiberekotasun eta segida-harremanak aztertzea, hortik eratorritako ezagutzak gainerako memento historikoak ulertzeko unean aplikatzeko.
4. Gizarte- eta kultura-inguruneke egitate, kontzeptu eta prozesuak kode kartografoen bidez interpretatu, adierazi eta irudikatzea eta horixe bera egitea errealitate geografikoak, ekonomikoak, historikoak eta bestelakoak adierazten dituzten bestelako adierazleekin, norberak bizi duen gizarte-errealitatea egoki ezagutzea lortzeko.

5. Gatazkaren existentzia onartzea; ezberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barne-aldaketarako faktore gisa erabiltzea, tratu txarrak eta jazarpenak eragozteko eta bizikidetza onuragarria lortzeko.
6. Berezko nortasuna eratzea, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko.

Tutoretza

1. Gizartearen aniztasuna onartzea eta aniztasun horrek bizikidetza aberasten duela aitortzea, eta, halaber, beste herri batzuen ohiturak eta bizimoduak errespetatzea, herrien arteko berdintasunaren ikuspegitik.
2. Komunitate bateko kide sentitzea, horren dinamikak aztertzea eta norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea, elkarren artean ulertzeko eta solidaritatea eta kohesio soziala errazteko.
3. Bidegabekeria- eta bereizkeria-egoerak antzematea eta aztertzea, hala nola honako arrazoi hauengatik gertatzen direnak: generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik eta pertsonalengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoiengatik; eta jarrera negatiboak eta Giza Eskubideetan oinarritutako bizikidetza bidezkoa eta berdintasunezkoa galarazten dutenak baztertzea.
4. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko eskubide-berdintasuna balioestea, bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasunezko jarrerak bultzatzea pertsonaren garapen integrala bermatzeko.

PROGRAMAZIOA

BAZTERKERIAREN AURKA

IPARRA ETA HEGOA, MUNDU BI

Gaztelania arloan egingo den bezala ikasleei unitate amaieran argudio testua ekoiztea proposatuko zaie: mahai-ingurua. Ahozko genero honen bidez ikasleek ulermen eta ahozko ekoizpen estrategiak garatuko dituzte besteak beste.

Landuko den gaiaren bidez munduan dauden ezberdintasunak eta herrialde garatuen eta garapenaren bidean daudenen ezaugarriak aztertuko dituzte. Horrela, etorkinek bere herrialdetik alde egiteko dituzten arrazoiak ezagutzeko aukera izango dute.

Komunikazio egoera

Eremua: Lagunarteko formala

Gaia: Bazterkeria jatorri ala maila ekonomikoagatik

Igorlea: Ikasle taldea

Hartzailea. Ikaskideak

Kanala: A / I / (**I > A**) / (A > I) / (Iksntzk) /Gr /

Asmoa eta helburua: Deliberatzea

Argitalpen lekua: Ikastetxea

Testu generoen errepertorioa

- **Mahai-ingurua**
- Iritzi artikulua
- Azalpen testuak
- Kontzeptu mapa
- Grafikoak
- Artikulua
- Txostena
- Fitxa teknikoa
- Bizipen kontakizuna/testimonioak
- Kexak eta galdera-erantzunak
- Kartela
- Glosategia
- Legebiltzarreko Gazteen Osoko Bilkura

Argudioa testuaren ezaugarriak:

- Asmoa: entzulearengan eragina izan.
- Egitura: tesia eta argudioa.
- Baliozko argudioak eta kontrako argudioak.
- Lokarri logikoak eta ordena zehaztekoak..
- Argudioen orden logikoa.
- Emailearen iritzia
- Testuaren izaera subjektiboa.
- Menpeko esaldia.
- Hartzailearekin harremanatzeko estrategiak.

UNITATEAREN BIZKARREZURRA

| | | |
|----------------|-----------------------------------|--|
| 0. SEKUENTZIA | MUNDUKO ESKOLAK | <p>Nolakoak dira munduko eskolak?</p> <p>Eta guk zer dakigu?</p> <p>Ados jarriko gara.</p> |
| 1. SEKUENTZIA | INFORMAZIO BILA | <p>1. jarduera. Glosategia, informazioa ulertzeko.</p> <p>2. jarduera. Bi mundu, garatua eta azpigaratua?</p> <p>3. jarduera. Nola neurtu aberastasuna?</p> <p>4. jarduera. Zergatik nazio batzuk dira aberatsak?</p> <p>5. jarduera. Zein da Euskadiren egoera?</p> <p>6. jarduera. Nolakoa da?</p> <p>7. jarduera. Zer egin genezake egoera hau hobetzeko?</p> |
| 2. SEKUENTZIA | ZER DA MAHAI- INGURUA? | <p>8. jarduera. Zer da zer?</p> <p>9. jarduera. Zertarako da mahai-ingurua?</p> |
| 3. SEKUENTZIA. | TESTUA AZTERTZEN | <p>10. jarduera. Mahai-inguruaren berezitasunak.</p> <p>11. jarduera. Galdera nola, erantzuna hala.</p> <p>12. jarduera. Zenbat buru hainbat aburu.</p> <p>13. jarduera. Zer dela eta zer dela?</p> <p>14. jarduera. <i>Aunitz balio du indarrak, gehio buru azkarrak.</i></p> <p>15. jarduera. Entzun lehenengo, hitz egin hurrengo.</p> <p>16. jarduera. Ni alde eta zu kontra.</p> <p>17. jarduera. Uste dut eta ez dut uste.</p> |
| 4. SEKUENTZIA | TESTUA PRESTATZEN | <p>18. jarduera. Zenbat hankako mahaia.</p> <p>19. jarduera. Hiru hankako mahaia ondo finkatua.</p> <p>20. jarduera. Ongi hasi, ongi bukatu.</p> <p>21. jarduera. Ondo egin dugu?</p> <p>22. jarduera. Nola egin dut lan?</p> |

HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Bestelako testu tipoen artean argudio testua ezagutzea.
2. Argudio testuaren asmoari antzematea.
3. Argudiozko testu genero batzuk ezagutzea, mahai-ingurua, entrebista eta iritzi artikulua.
4. Mahai-inguruaren ezaugarriak ezagutzea.
5. Emailearen iritziari antzeman, aldekoa, kontrakoa eta neutroa den desberdintzea.
6. Eztabaidarako galderak ezagutzea eta ekoiztea.
7. Iritzi arrazoituak ematea eta argudio baliogarriak ezagutzea eta erabiltzea.
8. Kontrako argudioak aurreratzea eta erabiltzea bestearen argudioak ezeztatzeko.
9. Gaia, tesia eta argudioak desberdindu eta behar bezala adieraztea.
10. Iritzia emateko esamolde eta hitz propioak ezagutzea eta erabiltzea.
11. Gaiari eustea.
12. Solaskidea eta hartzailearekiko tratamendua estrategikoak erabiltzea (bestearen alderdi positiboak aipatzea)
13. Jendaurrean jarrera, gorputz hizkuntza eta ahotsa zaindu.
14. Baliabide erretorikoak erabiltzea (eufemismoa).
15. Errespetuz hartzea eta erantzutea besteen iritziak bereizkeriarik gabe.
16. Dituen ulermen-arazoak argitzea estrategia egokiak erabiliz
17. Informazioa bilatzea.
18. Kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzea dituen testuko ideia nagusiak erabilia.
19. Gaiari buruzko hiztegia ezagutzea eta erabiltzen jakin.
20. Ekonomiari buruzko ikasketak erabiltzen jakin.
21. Laburdura siglak ezagutzea.
22. Grafikoak, mapak eta taulak ulertzea.
23. Talde lanean parte hartzea eta besteen ekarpenak balioestea.
24. Lana planifikatzea.
25. Lanen aurkezpena zaintzea.
26. Zailtasunen aurrean irtenbideak bilatzen ikastea.
27. Ohiko esaera diskriminatzaileak antzematen eta horiek ez erabiltzea

EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK

- Autonomia erkidegoko eta munduko erakundeetara hurbiltzea: besteak beste, gizarte-, ingurumen-, ekonomia-arazoak konpontzeko duten erantzukizuna.
- Herrialde garatu eta azpigaratuak. Munduko mapa ekonomikoa. Aberastasun maila desberdinak eta banaketa. Kanpo zorra.
- Barne Produktu Gordina, Biztanleko errenta eta Giza Garapenaren Indizea. Euskadiko ekonomiaren ezaugarriak.
- Jarduera ekonomikoak eta baliabideak. Sektoreen banaketa.
- Bazterkeria galarazteko erakundeak.
- Argudio testuaren intentzioa.
- Argumentazio egoera: Eztabaida, (des)adostasuna, helburua, hartzailea
- Argudiatzea/kontraargudiatzea
- Argudio testuaren zenbait marka linguistiko.

PROZEDURAZKOAK

- Egoerak eta arazoak aztertzeko hainbat iturritako informazioa biltzea.
- Ikasteko testuen ulermena garatzeko estrategiak: laburpenak, eskemak, kontzeptu-mapak, glosategia.
- Datuen errepresentazio grafikoa eta ulermena
- Gogoetarako gaitzat hartzea norberaren ikasketa, lanaren antolaketa, akatsa prozesu horren partetzat hartu beharra, eta nork bere buruari egindako zuzenketak eta ebaluazioa
- Argudioa testu motzak aztertzea, planifikatzea eta ekoitzi.
- Hizkuntzen arteko transferigarritasuna egin.

JARRERAZKOAK

- Estereotipoak eta edozein motatako bereizkeriak gainditzea, eta besteekiko enpatia izatea.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lankidetzarako eta parte hartzeko jarrera arduratsua.
- Elkarrizketa eta eztabaidetan besteen ideiekiko eta ekarpenekiko ezberdintasunak onartzea errespetuz eta tolerantziaz.
- Argudioa testuaren garrantzi soziala aintzat hartu
- Aurkakoaren iritzia errespetatu eta baloratu.
- Azken ekoizpenaren planifikatzearen eta berrikustearen eraginkortasuna balioztatu eta kontuan hartu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

| Ikaslea gai izan behar da: | Ebaluazio tresnak |
|---|------------------------------------|
| 1. Bestelako testu tipoen artean argudio testua ezagutzen. | 9. jarduera |
| 2. Argudio testuaren asmoari antzematen | 9. jarduera |
| 3. Mahai-ingurua, entrebista eta iritzi artikulua desberdintzen. | 8. jarduera |
| 4. Mahai-inguruaren ezaugarriak bereizten. | 8. jarduera |
| 5. Emailearen iritzia aldekoa, kontrakoa eta neutroa den desberdintzen | 11. jarduera |
| 6. Eztabaidarako galderak ezagutzen eta ekoizten. | 11. jarduera |
| 7. Iritzi arrazoituak ematen eta argudio baliogarriak erabiltzen. | 19. jarduera (Kontrol zerrenda) |
| 8. Bestearen argudioei erantzuten. | 19. jarduera (KZ) |
| 9. Gaia, tesia eta argudioak desberdintzen eta behar bezala adierazten. | 19. jarduera (KZ) |
| 10. Iritzia emateko esamolde eta hitz propioak erabiltzen. | 19. jarduera (KZ) |
| 11. Oharrik, eskemarik eta gidoirik erabiltzen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko. | 21. jarduera (KZ) |
| 12. Gaiari eusten | 21. jarduera (KZ) |
| 13. Jendaurrean jarrera, gorputz hizkuntza eta ahotsa zaintzen. | 21. jarduera (KZ) |
| 14. Besteen iritziak errespetuz hartzen eta erantzuten bereizkeriarik gabe. | 21. jarduera (KZ) |
| 15. Baliabide erretorikoak erabiltzen (eufemismoa). | 21. jarduera (KZ) |
| 16. Kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen | 6. testua 29/30or. |

| | |
|--|--------------------------------------|
| dituen testuko ideia nagusiak erabilia | |
| 17.Dituen ulermen-arazoak argitzen estrategia egokiak erabiliz. | Orokorrean |
| 18.Informazioa bilatzen. | Txostena |
| 19.Laburdura siglak erabiltzen. | Txostena |
| 20.Grafikoak, mapak eta taulak ulertzen. | 22, 23, 24 or. |
| 21.Gaiari buruzko hiztegia ezagutzea eta erabiltzen jakin. | Txostena |
| 22.ekonomiari buruzko ikasketak erabiltzen jakin. | Txostena |
| 23.Lankidetzan gogotsu parte hartzen eta besteen ekarpenak balioesten. | Orokorrean |
| 24.Lana planifikatzen. Lanen aurkezpena zaintzen. | Kontrol zerrenda |
| 25.Zailtasunen aurrean irtenbideak bilatzen | Auto erregulazio fitxak 8 eta 82 or. |
| 26.Entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen. | Orokorrean |
| 27.Ohiko esaera diskriminatzaileak antzematen eta horiek ez erabiltzen saiatzen den. | Orokorrean |

BAZTERKERIAREN AURKA

Iparra eta hegoa, mundu bi

0.SEKUENTZIA. MUNDUKO ESKOLAK MOTIBAZIOA ETA NEGOZIAZIOA

Helburua

Sekuentzia honen asmoa desberdintasunen gainean hausnarketa egitea eta ikasleak motibatzea da. Honekin zera lortu nahi da: ikasleek munduko hainbat eskolen ezaugarriak ezagutu ondoren konparazioa egitea da. Irakasleak aurre ezagupenak bilduko ditu eta unitatean landu beharrekoa negoziatuko du haurrekin haien inplikazioa lortzeko. Amaieran, ikasleek autoerregulazio ariketa izango dute haiek dituzten abileziez eta zailtasunez hausnarketa egiteko.

Ibilbidea

Ikasleek Unicef-ek eskaintzen dituen argazkiak aitzakiatzat hartuta munduan dauden desberdintasunak antzemango dituzte. Joko bat proposatu zaie eskola bakoitza nongoan den pentsatzeko eta dituzten baldintzei erreparatzeko. Proiektua

lantzen den bitartean ikasgelan zenbait mapa bistan izatea komeni da, mundukoa eta Euskadikoa batez ere.

- o Argazkien erreferentziak honakoak dira:

| | |
|----|---|
| 1. | Neska-mutilak beren eskolako jolastokian jolasten ari dira Australian. (Iturria: Evatt Primary School delakoaren web-gunea) |
| 2. | Neska-mutilak herrialdeko material tradizionalekin eraikia izan den Bangladesheko eskola batean. (Noorani/UNICEF) |
| 3. | Rwandako eskola honetan, neska-mutilen kopuru handi samar batek espazio txiki bat betetzen du. (Press/ UNICEF) |
| 4. | Pampiteko eskola, Quitoko kantoian (Ekuador) dagoen Cala Caliko Rayoucho komunitatean kokatua. (Belén Barbero/UNICEF) |
| 5. | Nigerko neska-mutilek Afrikako eguzkipean ikasten dute. (Pirozzi /UNICEF) |
| 6. | Ikasleak gerrak suntsitutako ikasgela batean idazten Baukau-n (Ekialdeko Timor). (Alex Baluyut / World Bank Photo Library) |
| 7. | Mostoleseko (Espainia) Maria Zambrano Ikastetxe Publikoko ikasleak informatikako gelan. (Iturria: Hezkuntza Informazio eta Komunikazioko Zentro Nazionala). |
| 8. | Neska-mutilak Peruko eskola batean. (UNICEF) |

- o Eskola batek bete beharko lituzken baldintzei buruz hitz egin eta gero irakasleak, ikasleen aurre ezagupenak finkatzeko, hemen proposatzen den galdera sortarekin jarrai dezake. Komeni da galderen erantzunak horma-irudi batean edo arbelean idaztea ideia guztiak sailkatuz eta erlazionatuz. Honekin lortu nahi duguna izango da zeintzuk diren hutsuneak jakitea eta baita ikasleen interesak ezagutzea ere. Gero, landu beharreko edukiak denon artean adostuko dira.

Aurre-ezagupenak lantzeko galdera sorta:

Zeintzuk dira ezagutzen dituzun nazio aberatsak?

Zeintzuk dira ezagutzen dituzun nazio txiroak?

Munduan non koka daitezke herrialde aberatsak eta txiroak?

Zeintzuk dira, zuen ustez, ondo bizitzeko gutxieneakoak? Bizimodua, elikadura, jaki naturalak edo elaboratuak diren, janariaren ugaritasuna, etxebizitza, familia osatzen duten pertsona kopurua, osasuna, eskolaratzea, umeei lan egin beharko duten, bakea ala gerra dagoen, industriaren garapena, garraiobide egokiak, baliabideen ustiaketa ...

Zeintzuk dira nazio aberats baten ezaugarriak?

Zeintzuk dira nazio pobre baten ezaugarriak?

Zein irtenbide daukate herri hauetako biztanleak?

Badago modurik aberastasuna/txirotasuna neurtzeko?

Zelan neurtu daiteke aberastasuna?

Ezagutzen dituzu herrien arteko laguntza erakundeak?

Sekuentzia amaitzeko lan-hitzarmena eskaini da ikasleak lanaren aurrean bere burua kokatzeko eta dituen zailtasunei aurre egiten jakiteko.

Taldekatzea

Sekuentzia honetan talde txikian egingo da argazkien jokoa eta eskolek dituzten baliabideen taula.

Talde handian *eta guk zer dakigu?* eta *Ados jarriko gara* egingo da.

Lan-hitzarmena bakarka egitea proposatu da.

1. SEKUENTZIA INFORMAZIO BILA

Helburua

Ikasleek ekoiztuko duten mahai-ingurua eta iritzi artikuluan immigrazioaren gaiaz arituko direnez, munduko herrialde batzuen egoera ekonomikoa aztertzea proposatzen da. Sekuentzia honetan Ingurune arloaren edukiak lantzeaz gain, ulermen estrategiak landu nahi izan dira ere.

Ibilbidea

Alde batetik, hitz ezezagunen glosategia osatzea eskatuko zaie ikasleei ekonomiako hainbat kontzepturen jabe egin daitezen; bestetik, ideia nagusiak biltzea, eskemak egitea...izango dira proposatuko zaizkien jarduerak besteak beste.

Sekuentzia amaieran talde bakoitzak aukeratu duen herrialdearen txostena osatuko du, bertan populazio eta ekonomia datuak bilduko ditu. Txosten hau euskaraz garatuko da, nahiz eta populazio kontzeptuak gaztelania arloan landu. Horrez gain, Euskadiko egoera ekonomikoa aztertuko dute eta sekuentzia honetan jasotako informazioa gaztelaniako txostenerako izango da.

Amaieran munduan dauden desberdintasunak leuntzeko ideien bilketa horma-irudi batean islatzea proposatzen da.

Taldekatzea

Jarduera gehienak talde txikian egitea proposatzen da. Irakasleak ikusiko du zuzenketak talde handian egin ala taldez talde.

2. SEKUENTZIA ZER DA MAHAI-INGURUA?

Helburua

Sekuentzia honen asmoa mahai-ingurua zer den ezagutzea da.

Ibilbidea

Hasieran, ETB1eko **Ikusikas** programaren saio bat ikustea eskatzen da mahai-inguruaren ezaugarrietara hurbilpena egiteko. Ez da beharrezkoa izango bideo osoa ikustea, irakasleak erabakiko du noiz egin etena. Geroago, mahai-ingurua eta

elkarrizketa testu generoak alderatuko dituzte. Bukatzeko, beste testu-tipo batzuk aztertuz mahai-inguruaren asmoa zein den eta beste ezaugarri batzuk ondorioztatuko dituzte.

Taldekatzea

Jarduera gehienak talde txikian egiteko pentsatu dira, dena den beharrezkoa izango da hausnarketak talde handian egitea.

8. jardueran mahai-inguruaren ezaugarri batzuk ekarri ditugu hona:

Zeri buruz hitz egingo duzue?

Gai interesgarri bati buruz
Ikuspegi ezberdinak dituen gai bati buruz

Zertarako egingo dugu?

Norbere edo besteen iritzia agerian jartzeko
Zu eta zure ikuspegia ezagutzera emateko eta errespetatzeko
Arrazoi egokiak erabili besteak konbentzitzeko

Nola jokatu behar dugu?

Ikuspegi ezberdinak eta iritzien trukea egon behar da
Iritzia eman behar da arrazoiak gaineratuz
Entzun eta entzun
Besteen iritzia entzun behar da haiek duten ikuspegia ezagutzeko eta kontrari hobeto egiteko
Mahai-ingurura joan zure iritzia zein den jakinda
Moderatzaileak bere iritzia eman behar du
Moderatzaileak solasaldia gidatzen du.

3. SEKUENTZIA. TESTUA AZTERTZEN

Helburua

Sekuentzia honek mahai-inguruak dituen berezitasunak lantzea du helburu.

Ibilbidea

Proposatu diren jardueren bidez landuko dira: komunikazio egoera, galderak nola egin daitezkeen, tesiaren garrantzia, argudioen beharrezkotasuna tesia indartzeko, kontra argudioak alde aurretik prestatzearen garrantzia, iritzia emateko esamoldeak eta jendaurrean hitz egiteko arauak.

Ordu Txikitan telebistako saioa ikustea proposatzen da jendaurrean hitz egiten dugunean gorputzaren jarrera aztertzeko.

Sekuentzia amaieran egoera bat antzeztuko dute binaka, aldez aurretik prestatuko dituzte beren tesia defenditzeko argudio eta kontra argudioak. Antzezlanaren bitartean ikusleek parte hartzaileen lana ebaluatuko dute eskuragarri dagoen txantiloaren bidez. Txantilo honetan **Zer esan dugu** eta **Nola esan dugu** baloratuko da eta hobetzeko proposamenak luzatuko dira.

Taldekatzea

Jarduera gehienak talde txikian egiteko pentsatu dira, dena den beharrezkoa izango da hausnarketak talde handian egitea. Sekuentzia amaierako esketxa binaka egitea eskatzen da, hau da, bi ikaslek jarrera baten alde egingo dute eta beste bik kontrakoa defendituko dute.

13. jarduera:

Otsoak babestu behar al dira?

| | |
|--|---|
| <p>Akabatze arrazoiak</p> <p>Etsai arriskutsua da.</p> <p>Otsoak gizakiak ehizatzen dituen animalia berak ehizatzen dituela eta artaldeak mehatxatzen dituela.</p> | <p>Kontran egiteko arrazoiak</p> <p>...elikatzeko baino ez du hiltzen.</p> |
| <p>Gizakiaren otsoarenganako gorrotoa iragandako gertakizun ikaragarriek eta beldurrek ere sortu izan dute. Adibidez, gerra garaian otsoek gizaki ahulduak irentsi izan dituzte.</p> | <p>...kasu hauek erabat muturrekoak dira.</p> |
| <p>Otsoak amorraren gaitza kutsatu zezakeela ikusi zuenean gizakiak ingurutik garbitzea erabaki zuen. Horregatik, 500.000 otso bakarrik gelditzen dira munduan.</p> | <p>Otsoak hainbestearaino mehatxatu direnez, denbora gutxi barru desager daitezke.</p> <p>Zenbait espezie, Estatu Batuetako otso gorria kasu, hamarrenera murriztuak izan dira</p> <p>Zoritxarrez, oraindik ere otsoen akabatze honek herrialde askotan berdina dirau, Errusian adibidez.</p> |

| ALDEKO ARGUDIOA | KONTRAKO ARGUDIOA |
|---------------------------------|---------------------------|
| Bizi-kalitatea hobetzea | Familia sorterrian uztea |
| Osasun zerbitzuak eskura izatea | Bidaia arriskutsua egitea |
| Lana izatea | Bakarrik sentitzea |

| | |
|--|--------------------------------------|
| Hizkuntza eta kultura berriak ez ezagutzea | Baztertuta sentitzea |
| Sorterrian etxea erosi ahal izatea | Lanordu amaigabeak egin behar izatea |
| Eskolaratzeko erraztasuna | |
| | |

4. SEKUENTZIA TESTUA PRESTATZEN-

Helburua

Azken sekuentzia honen asmoa mahai-ingurua prestatzea eta egitea da. Horretarako, aurreko sekuentzietan ikasi den guztia gogoratu nahi dugu proposatu diren jardueren bidez.

Ibilbidea

Ikasle bakoitzak bere tesia, argudioak eta kontra argudioak idatziko ditu eta erabiliko dituen esapideak prestatuko ditu. Gero, denon artean mahai-inguruaren sarrera egin eta adostuko dute. Unitatean saioa nola antolatu daitekeen zehaztu egin da: bi txanda antolatu daitezke, talde bat eztabaidatzen dagoenean besteak ebaluatuko dezake. Irakasleak erabaki dezake beste era batean egin ala ez.

Sekuentzia honetan ebaluazio une desberdinak egin daitezke:

- Ikasle bakoitzaren tesia, argudio, kontra argudio eta erabiliko diren esapideak baloratzeko.
- Mahai-ingurua orokorrean baloratzeko.
- Proiektu amaieran auto erregulazio jarduera bat.

Baliabide lagungarriak

Ikusikas bideoa EITB

Ordu txikitan Bideoa EITB

Munduko Industri Gune Nagusiak (32. orrialdean) Informazio iturria

Giza Garapenaren Indizea (EUSTAT- ek Nazio Batuen Erakundeak argitaratua)

Zenbait mapa mutu

Milurtekorako Helburuak (FETE/UGT)-ek argitaratua.

Sustraiak han dituena Mikel Laboa - J. Sarrionandia

Eskolako uniformea youtube-tik hartutako bideo hau ez da unitatean ageri azken orduan aurkitu dugulako. Baina, uste dugu erabilgarria izan daitekeela.

Aberastasuna eta txirotasuna gaiei buruz irudiz eta musikaz osatutako bideoak aurkitu ditugu helbide hauetan:

<http://es.youtube.com/watch?v=vNgivt6sSLg>

<http://www.youtube.com/watch?v=ZuU1W-XcNFE>

<http://www.youtube.com/watch?v=U-TyTEe4Hos>

<http://www.youtube.com/watch?v=zdfdNaSj8e8>

